

84 - UDALA

1. HELBURUAK:

- 1 Udala auzoko nekazal hirigunea antolatzea, abel-nekazal jardueretarako eranskinak eraikitzea ahalbideratuz.
- 2 Inguruarekin bat datozen irizpideak jarraituz, auzoaren gune biak hiri zerbitzuz hornitzea.
- 3 Aparkalekuen antolamendu orokorra egitea.

2. EGITURAZKO ANTOLAMENDUA:

LURZORUAREN SAILKAPENA:	Hirilurra
ESPARRUAREN AZALERA:	110.697 m ²
ERABILERA OROKORRA:	Etxebizitza
SISTEMA OROKOR PUBLIKOAK:	<p>Esparruaren barruan geratzen diren:</p> <ul style="list-style-type: none"> - GI-3552 errepidearen zatia - Mendi-ibilbideen sare nagusiaren zatia
ERAIKIGARRITASUN FISIKOA:	Bereganatzen den plan bereziak aitortu duena
HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA:	Bereganatzen den plan bereziak aitortu duena
ERAIKIGARRITASUN HAZTATUA:	Bereganatzen den plan bereziak aitortu duena
BABESTU BEHARREKO ONDAREA:	Palazio baserria, San Esteban eliza, Garaikoaundia baserria, Udala auzoko garbitokia, Eskola etxeak eta pilotalekuak osatzen duten multzoa, Dolara baserria eta Leorraga baserria
ETXEBIZITZA KOPURUA:	Guztira: 28
EGITARAU:	Egikaritzen

3. BEREGANATUTAKO ANTOLAMENDUA:

Udalako plan berezia, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2005eko azaroaren 29an behin betikoz onartutakoa, bereganatzen du HAPO honek. Baita agiriak ondoren izan dituen 2 aldaketa puntualak.

4. ANTOLAMENDU XEHATUA:

HIRILUR MOTA:	Finkatugabea
ANTOLAMENDU ARAUBIDEA:	Bereganatua (A4)
JARDUKETAREN EREMUA:	Esparrua bera
JARDUKETA ERA:	Lankidetzeta-sistema (K5)
ZUZKIDURAK (TOKIKO SISTEMAK ETA URBANIZAZIO IRIZPIDEAK):	
- Udalatxera sarbide izanik aparkaleku gune egoki bat antolatu beharko da.	
ERABILERA ARAUBIDEA:	
- E. ohikoena:	Landa etxebizitza (73 artikulua)
- Gainontzean, onartutako plan bereziaren araberakoa	
ERAIKIGARRITASUN XEHATUA:	Onartutako plan bereziak zehaztu du
ERAIKUNTZAREN ARAUBIDEA:	Onartutako plan bereziaren araberakoa
ESKUHARTZE GUNEA:	BAI

BESTE BATZUK:

1. Gaur egungo eraikinak antolamenduarekin bat datozen ala ez bereganatutako planak zehaztu du.
2. Eraikigarrtasun haztatua kalkulatzeko ez da erabiliko 36 artikuluan jasotako laukia. Aldiz, plan bereziak landutako hirigintza zamen zehaztapen ekonomikoa jarraituko da.

5. KONTUAN HARTZEKOAK:

- 1 Udalako San Esteban eliza eta Dolara baserria, bakoitza bere inguru hurbila barne, balizko arkeologia gune bezala izendatuta daude.
- 2 Hirigintza zama eta etekinen arteko oreka lortze aldera, Udalak hiritartze lanen kostuaren zati bat bere gain hartuko du.